ZUZENBIDE FAKULTATEA
FACULTAD DE DERECHO

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA
JSKJ CJJS UPV EHU
CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

## ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN AKTA/ ACTA DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN

**Data/Fecha**: 2025eko abenduaren 11a/ 11 de diciembre de 2025
**Tokia/Lugar**: Aurrez aurre + Online
**Ordua/hora:** 15:00-16:30

| **Bertaratuak:** | | **Ezin etorria adierazi dutenak:** | **Etorri ez direnak:** |
|---|---|---|---|
| Amadeo Szpiga<br>Ana Leturia<br>Auxkin Galarraga<br>Alazne Irigoien<br>Fernando Tapia<br>Oscar Abalde<br>Oscar Arroyuelo<br>Itziar Altuzarra | Maggy Barrère<br>Idoia Igartua<br>Leyre Hernandez<br>Miren Odriozola<br>Iker Barbero<br>Malena Maceira<br>Amanda Verrone<br>Joseba Ezeiza | Aitor Jiménez<br>Juana Goizueta<br>Andrea Bertomeu | Ana Rosa González |

| **GAI-ZERRENDA** | **ORDEN DEL DÍA** |
|---|---|
| 1. Aurreko bileren aktak onartzea<br>2. Zuzendaritzaren informazioa<br>3. Kasuen aurkezpen saioaren balorazioa<br>4. Hurrengo prestakuntza saioak<br>5. Aterpe eta asilo eskatzaileentzako zuzeneko arreta proiektuari buruzko informazioa<br>6. JSKJaren 10. urteurrenaren argitalpenerako lan -talde baten sorrera<br>7. Klinika Juridikoen biltzarraren balorazioa<br>8. Galde-eskeak | 1. Aprobación del acta de la sesión anterior<br>2. Información de dirección<br>3. Valoración sesión presentación de casos<br>4. Siguientes sesiones de formación<br>5. Información sobre proyecto atención directa refugio y asilo<br>6. Creación grupo de trabajo publicación 10 años de CJJS<br>7. Valoración sobre el Encuentro de Clínicas Jurídicas<br>8. Ruegos y preguntas |
| 1. **Aurreko bileren aktak onartzea**<br><br>Aktan jaso nahi izan dira bileran egindako gogoetak. Ñabardurak egiaztatzeko eta eransteko aukera eman nahi izan da, eta behin betiko akta hurrengo bileran onartzea adostu da.<br><br>**2. Zuzendaritzaren informazioa**<br><br>**2.1. Gogoeta-prozesua.** Urrats batzuk egin dira, baina ez dira ideiak edo proposamenak biribildu. Hurrengo bileran aurkeztuko dira identifikatutako aukera ezberdinak.<br>**2.2. Tutoretzak.** Jada esleituta daude lan eta praktika guztiak. Zailtasun batzuk egon dira praktiken kudeaketaren alorrean, ez baita beti erraza praktikak eta kasuak bateratzea. Horretarako, fakultateak dituen hitzarmenei | **1. Aprobación del acta de la sesión anterior**<br><br>La intención era dejar constancia en acta de las reflexiones realizadas durante la reunión. El objetivo era brindar la oportunidad de verificar y matizar, y se acordó que el acta final se aprobaría en la siguiente reunión.<br>**2. Información de dirección**<br>**2.1. Proceso de reflexión.** Se han dado algunos pasos, pero no se han concretado ideas ni propuestas. Las diferentes opciones identificadas se presentarán en la próxima reunión.<br>**2.2. Tutoría.** Ya se han asignado todas las tareas y prácticas. Se han presentado algunas dificultades en la gestión de las prácticas, ya que no siempre es fácil combinar prácticas y casos. Para ello, será necesario añadir adendas a los acuerdos que el profesorado tiene vigentes para garantizar la compatibilidad. |

addendak erantsi beharko zaizkie bateragarritasuna bermatzeko.
**2.3. Mintegi iraunkorra.** Abenduaren 18ko saioan elkarrizketak egiteko erreminta batzuk eskainiko dira, lauhileko honetako azken saioan. Urte hasieran beste saio bat eskainiko da gai horren inguruan.

**3. Kasuen aurkezpen saioaren balorazioa.**

- Oro har, errealitatera hurbiltzeko bide baliagarritzat jotzen da.
- Hainbeste ahots, elkarte eta sentiberatasun gela berean elkartzea oso positibotzat jo da.
- Positibotzat jo da gai eta ikuspegi aniztasuna, eta gai berrien agerpena.
- Klinikako ahalik eta kide gehien bertan egotearen garrantzia azpimarratu da.
- Denbora aldetik, saioa luzeegi gertatu zela adierazi zen.
- Kide batzuek aurkezpena bi saiotan banatzea proposatu dute.
- Era berean, aurkezpenen denbora mugatzea ere proposatu da.
- Arazo nagusia izan zen aurkeztutako kasuen kopuru handia.
- Aldez aurretik kasuen hautaketa bat egitea ere proposatu da.
- Horretarako, ikasleek aldez aurretik adierazitako interesa kontuan hartzea proposatu da.
- Beste bide bat kasuak idatziz jasota edukitzea, ez bakarrik GRAL/MAL/Praktikei begira, baina, bai, agian, beste prozesu batzuen bidez bideratzeko.
- Kasu batzuk bateratzeko aukerak kontsideratzea ere planteatu da.
- Beste aukera bat da aurkeztutako kasuak klinikaren bestelako saioetan debateak eta analisiak egiteko erabiltzea.

Elkarte eta kanpoko profesionalei eskertze-gutun bat bidali zaiela informatu da. Mezu orokorra ez ezik, mezu pertsonalak ere bidaliko zaizkie hautatu gabeko kasuak aurkeztu ez dituztenei.

**4. Hurrengo prestakuntza saioak**

Abenduaren 18ko saioa Donostian izango da, ponentea bertakoa izanik, egoki ikusi zelako. Hurrengo saioak Bizkaian egiteko aukera aztertuko da. Beste saioetarako hizlariak ez daude oraindik zehaztuta. Proposamenak jasotzeko epe

**2.3. Seminario permanente.** Se ofrecerán algunas herramientas para la entrevista en la sesión del 18 de diciembre, la última sesión de este semestre. Se ofrecerá otra sesión sobre este tema a principios de año.

**3. Valoración sesión presentación de casos**

- En general, se considera una forma útil de acercarse a la realidad.
- El hecho de que tantas voces, asociaciones y sensibilidades se reunieran en una misma sala se consideró muy positivo.
- La diversidad de temas y perspectivas, así como la aparición de nuevos temas, se consideró positiva.
- Se destacó la importancia de contar con la presencia del mayor número posible de miembros de la clínica.
- En cuanto al tiempo, se comentó que la sesión fue demasiado larga.
- Algunos miembros sugirieron dividir la presentación en dos sesiones.
- También se propuso limitar la duración de las presentaciones.
- El principal problema fue el gran número de casos presentados.
- Se propuso realizar una selección de casos con antelación.
- Para ello, se propuso tener en cuenta el interés expresado previamente por los estudiantes.
- Otra opción es registrar los casos por escrito, no solo para el GRAL/MAL/Prácticas, sino también, quizás, para canalizarlos a través de otros procesos.
- También se propuso considerar la posibilidad de combinar algunos casos.
- Otra opción es utilizar los casos presentados para su discusión y análisis en otras sesiones de la clínica.

Se ha informado que se ha enviado una carta de agradecimiento a la asociación y a profesionales externos. Además de un mensaje general, también se enviarán mensajes personales a quienes no presentaron los casos no seleccionados.

**4. Siguientes sesiones de formación**

La sesión del 18 de diciembre se celebrará en San Sebastián, dado que las ponentes son de allí, lo cual se consideró oportuno. Se estudiará la posibilidad de celebrar las próximas sesiones en Bizkaia. Aún no se han determinado los y las ponentes para las demás

| | |
|---|---|
| bat zabaldu da. Helburua da urtarrilaren hasieran programa osoa ixtea. | sesiones. Se ha abierto un plazo para la recepción de propuestas. El objetivo es cerrar el programa completo a principios de enero. |
| **5. Aterpe eta asilo eskatzaileentzako zuzeneko arreta proiektuari buruzko informazioa** | **5. Información sobre proyecto atención directa refugio y asilo** |
| Proiektuan egindako aurrerapausoen inguruko informazioa eman du Oscar Abalde batzordeko kideak. | El miembro del comité, Oscar Abalde, informó sobre los avances del proyecto. |
| Lehenik eta behin, hitzarmen baten zehaztapenean egin dute lan. Hitzarmen-markoetarako klausulen proposamena helarazi zaizkie elkarteei, eta euren erantzunaren zain gaude une honetan. Klausula horien bidez zehaztu nahi dira Klinikak egingo lituzkeen jarduerak eta ekarpenak. Elkarteen zerbitzu juridikoen eskuetan daude une honetan. | En primer lugar, se ha trabajado en la definición de un acuerdo. La propuesta de cláusulas para el acuerdo marco se ha enviado a las asociaciones y estamos a la espera de su respuesta. Estas cláusulas definen las actividades y contribuciones que realizará la Clínica. Actualmente, se encuentran en manos de los servicios jurídicos de las asociaciones. |
| Ikasturte honetan 5 ikaslek hartuko dute parte. Prestakuntza orain egingo dute, eta, praktikak toki eta une ezberdinetan egingo ditu bakoitzak. Ikasle horietatik 4 Klinikara atxikita daude, eta horrek bermatzen du bi proiektuen arteko kongruentzia. | En este curso académico participarán 5 estudiantes. Realizarán la formación y cada uno realizará las prácticas en diferentes lugares y horarios. Cuatro de estos estudiantes están adscritos a la Clínica, lo que garantiza la coherencia entre ambos proyectos. |
| Prestakuntza-programari dagokionez, aurreko edizioetan identifikatutako zailtasunak kontuan hartuta, egokitzapen batzuk egin dira, eta saioak hiru egunetara mugatu dira (9 lantegi, hiru egunetan). Elkarrizketari dagokion mintegiaren ordez, nazioarteko zuzenbidearen arloko ikuspegi feministen inguruko bat. | En cuanto al programa de formación, teniendo en cuenta las dificultades identificadas en ediciones anteriores, se han realizado algunos ajustes y las sesiones se han limitado a tres días (9 talleres, distribuidos en tres días). En lugar del seminario sobre diálogo, se realizará uno sobre perspectivas feministas en el ámbito del derecho internacional. |
| Praktikei dagokienez, jakinarazi da derrigorrezko gutxieneko ordu-kopurua gainditzen baldin bada, aukera egongo da ordu-kopuru hori curriculumean (eta gizarte-segurantzaren kotizazioan) kontuan hartuak izan daitezen. | En cuanto a las prácticas, se ha anunciado que, si se supera el mínimo de horas obligatorias, se podrán computar en el currículo (y en las cotizaciones a la seguridad social). |
| Zuzeneko arreta-zerbitzua ere abiatu dela jakinarazi da. Une honetan hiru pertsonari eskaintzen ari zaizkie aholkularitza. | También se ha anunciado la puesta en marcha de un servicio de asistencia directa. Actualmente, se ofrece asesoramiento a tres personas. |
| **6. JSKJaren 10. urteurrenaren argitalpenerako lan -talde baten sorrera.** | **6. Creación grupo de trabajo publicación 10 años de CJJS** |
| Hamargarren urteurrena dela eta, argitalpen bat eta ekitaldi bat egitea proposatu da. Argitalpen hau aurrera eramateko funts ekonomikoa ere badagoela jakinarazi da. Klinikaren ibilbidearen erakusleihoa izatea bilatzen da, ikasle, irakasle, lankide eta ikertzaileen lankidetzarekin. Talde bat sortzea proposatu da. Hurrengo bilerarako taldea osatuko da. | Con motivo del décimo aniversario, se ha propuesto realizar una publicación y un evento. También se ha anunciado la existencia de un fondo económico para llevar a cabo esta publicación. Se busca que sea una muestra de la historia de la clínica, con la colaboración de estudiantes, profesores, colegas e investigadores. Se ha propuesto la creación de un grupo. El grupo se formará para la próxima reunión. |
| | **7. Valoración sobre el Encuentro de Clínicas Jurídicas** |

| | |
|---|---|
| **7. Klinika Juridikoen biltzarrari buruzko balorazioa.**<br><br>Antolaketa-mailan oso ondo joan zen guztia. Ekarpen interesgarriak egon ziren, gogoetarako bidea ematen dutenak. Gogorarazi da argitalpenean parte hartzeko bidea zabalik dagoela oraindik.<br><br>**9. Besterik**<br><br>• GAITUZ 2026 deialdiaren xehetasunen berri eman dira.<br>• GrALak eta MALak sarien deialdietara bidaltzeko epeetara adi egotea komeni dela gogorarazi da. | Todo salió bien a nivel organizativo. Hubo aportaciones interesantes que dieron pie a reflexiones. Se recordó que la oportunidad de participar en la publicación sigue abierta.<br><br>**8. Ruegos y preguntas**<br><br>• Se han anunciado los detalles de la convocatoria GAITUZ 2026.<br>• Se recuerda la importancia de estar atentos a las fechas límite para la presentación de GrAL y MAL a las convocatorias de premios. |